



SARA

Ibanteli

Distantzia 9,8 km	Desnibela 600 m	Iraupena 3h30	Tipologia Itzulia	Zedarriak PR ibilbide osoan
-----------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	---------------------------------------

Donibane Lohizunetik (A63 autobideko 3. jalgibidea), D918 segitu Azkaineko norabidean. Azkaineko hiri-barrera joan D504 errepidetik, eta D4 errepidea hartu Sarako norabidean. Sarako itzulia egin eta gero, D306 errepidea hartu Lizarieta lepoko norabidean eta 5 km-tan segitu, erreken bidegurutze baten heinean, eskuinaldean, aparkaleku gune bat aurkitzeko, kanpoan bazkaltzeko mahaiekin (beste aparkaleku handiago bat bada 100 m urrunago ezker: Xabalo gunea).

GPS datuak: **UTM : 613441 - 4792713 Lat/Long : 43.27868/-1.60191**

Erreka freskagarrien ondoan abiatuz, gaztainadi eta harizti arteko hasierako bideak Larrungo beste aldean salatuko dizu urratsez urrats, lehen eguzki izpiek irisatutako laino estalien gainetik. Ubide ttipi baten bazterretik ibili ondoren, ibilbidea agerian igotzen da, muinoetarako ikuspegia zabalduz. Hegiaren eta mugaren bazterretik, patarra gero eta zorrotzagoa izaten da, soropil zabal eta eder batean lautu aitzin. Orduan, Ibanteli gailurrera eramane zaituzten azken aldapak igotzeko tenorea da. Gailur honek 360°-ko panorama harrigarria eskaintzen du euskal baserrialdera, ozeanora, Larrunera, Ibardin lepora, Aiako Harrira, eta ekialdean, Pirinioetara eta Axuriara. Norabide honetan ere ikus daiteke Lizarrieta mugako lepoa, atsedendaldi fresko bat edo bazkari tipikoa eta nasaia har dezazun zure zain dagoena...



1. ZATIA > Aparkalekutik ubide ttipira

UTM: 613441 - 4792713. Errepidea bizkarrean duzula (110 m) eta kanpoan bazkaltzeko mahaia eskuin, erreka ibitik zeharkatu eta eskuineko bidexka zutean igo. Laugune batera heldu eta (166 m), oihana argitzen den lekuan, ezkerera igo eta hegi eta hesi baten artean segitu. Bide harriztatura iritsi eta, ezker segitu bihurgune zorrotz bateraino, ubide ttipia hodi batean sartzen den tokian.

2. ZATIA > Ubide ttipitik mugako lepo zabal eta belartsura

UTM: 612326 - 4792906. Hodietan pasatzen den lekuan, ubide ttipia iragan (221 m) eta bidea utzi zuzen segituz, eta ondotik, segidan ezker. Handik 100 m-tara, eskuinean den bidea utzi, bide nagusian segi igotzen, laster pudinga harkaitz handi baten aitzinean pasatzen dena; bihurguneak marrazten ditu, eta lur-jausi baten ondoan lautzen da. Laster, zuzen doan igoera hasi oihan bazterretik, lepo zabal eta belartsu bateraino.

3. ZATIA > Lepo zabal eta belartsutik Lizarrieta lepora

UTM: 611516 - 4791770. Lepo zabaletik (600 m), Ibanteli lepora joateko, mugarri baten norabidean ezker hartu, gailurraren ardatzean. Gailurrera iritsi zailtasunik gabe (698 m) eta lepo zabalera itzuli. Orduan, ezkerrean jaitsi haritz bakarti baten norabidean; eskuinetik iragan. Urrunago, harri altxatu bat ezkerrean utzi (omenaldia).



Handik 250 m-tara, ezkerretik datorren bidearen ondotik (abereendako hespila), haritz bakarti baten ezkerretik segitu eta Lizarieta lepora iritsi (ostatuak, jatetxeak).

4. ZATIA > Lizarrieta lepotik harrizko arditegira

UTM: 612081 - 4790696. Lizarrieta lepoan (441 m), errepidea ezkeraldera segitu 350 m-tan, lehen bihurgune zorrotzeraino (419 m). Orduan errepidea utzi, zabalean ezkerrean doan bidexka hartuz. Nahiz eta igoera ttipi batzuk izan, besteak beste aurri baten ondotik, bidexka erregularitasunean jaisten da Ibanteliko mazelan. Oihanera hurbiltzerakoan, harrizko arditegira iritsi.

5. ZATIA > Harrizko arditegitik aparkalekura

UTM: 612740 - 4792368. Arditegiaren eskuinetik ibili (262 m) eta bide harritsuan sartu. Arditegia iragan eta 300 m urrunago, bidea utzi eskuin jaisten den bidexka hartzeko. Beherago, eskuineko bidexka utzi, eta doi bat ezkerrean segitu. Ibilbidearen hasierako aparkalekura zailtasunik gabe heltzen den oihanbidea segituz jaisten segitu.



INTERESGUNEAK

❖ Pudinga harkaitza (1,7 km)

Izena ingeles bixkotx famatutik dator, "pudding", orean egositako mahats eta fruitu melatuz egina. Itxura berekoa, geologian, pudinga arroka agregatu trinko bati dagokio, non uharrak eta beste arroka detritikoak aurkitzen diren, zementu naturalean harturik, gehienetan hareharria.

UTM: 612328 - 4792739

❖ Lauburu (4,1 km)

Ibanteli gailurrean, harkaitz baten gainean lauburu bat ikus daiteke. Beste eskualde batzuetan ere aurki daitekeen ikur hori, euskal nortasunaren adierazle handi bat da. Duen erranhia ez da arras finkatua, baina biziaren, eguzkiaren, zeruaren eta luraren zikloari erreferentzia izan daiteke.

UTM: 611969 - 4791878

❖ Ibanteliko zerumuga itzulia (4,1 km)

Ibanteliko hegoaldean, mendilerro ttipiak agertzen dira bata bestearen ondotik Nafarroako lurraldean (Ernest Hemingway liluratu zuen herriaren aldera: Iruñea). Mendebaldean, Aiako Harriaren hiru tontor makurtuak. Ipar-mendebaldean, Hendaia badi, non Bidasoa isurtzen den; aitzinago, Ibardin mugako lepoa, bere bentekin. Iparraldean, Larrun gailurra ikusgarria da.

UTM: 611969 - 4791878

❖ Ibanteliko meatze-obren aurriak (7 km)

Erdi-Arotik XIX. mende erdia arte, erregai iturri handi bat izan zen Sarako oihana (lur ikatza, pago-ikatza) ikaztegiak hornitzeko. Ibanteliko mazelatan, oraindik meatze-iragan horren aztarnak ikus daitezke, hala nola ibarrerako mea-hustuketarako beharrezkoak ziren kable zutabeen aurri hori.

UTM: 612459 - 4791197

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

Ibilbide hau ez da gomendatua uso ehizaren garaian eta denbora txarrez

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Lizarrietako lepoa, tabernak-jatetxeak (5,9 km)

UTM : 612 078 - 4790 669

Ibilbideen erabilbidea

ZAITASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoa.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzrien gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.

Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emai ozu (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota ondorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoren.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren gunetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKHEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeak aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02
- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69
- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99
- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14
- AZKAINE, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84
- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa
Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brevetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.

ZEDARRITZATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEKKA	GRP® TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEKKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	↶	↶	↶	◀
Itzul eskuin	↷	↷	↷	▶
Norabide okerra	×	×	×	✗